

# Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2005eko otsailaren 18a / 705. zenbakia

lketeta III.Cante Flamenko Txapelketa III.C  
Flamenko Txapelketa III.Cante Flamenko  
nte Flamenko Txapelketa III.Cante Flam

lketeta **III.Cante Flamenko Txapelketa III.C**

## URTEROKO HITZORDUA

ZAPATUAN TXAPELKETAREN FINALA AMAIA UDAL ANTZOKIAN



ORAIN ETA HEMEN: OSOKO BILKURA/6 • KULTURA: TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON/14

ARGAZKIA: ARRASATE PRESS

**GREMIOEN GIDA/20**

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 18**  
Zabala, Zarugalde 42. .... 943 77 16 30
- ZAPATUA, 19**  
Azkoaga, Ferrerías 1 ..... 943 79 15 15
- DOMEKA, 20**  
Azkoaga, Iturriotz 17 ..... 943 79 79 99
- ASTELEHENA, 21**  
Corcuera, M. Aranbarri 1 ..... 943 79 22 26
- MARTITZENA, 22**  
Irizar, Erguin 11 ..... 943 79 12 39
- EGUAZTENA, 23**  
Amezua, Santa Marina 32 .... 943 79 09 74
- EGUENA, 24**  
Español, Araba etorb. 14 ..... 943 79 18 65
- EGUBAKOITZA, 25**  
Ruiz, Maala 31 ..... 943 79 14 09

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

- ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00  
Iguatorialdea. .... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak. .... 943 79 39 00  
Emakumeak. .... 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea. .... 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**  
SOS Deiak. .... 112  
Gurutze Gorria. .... 943 76 55 76  
DYA. .... 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua. .... 943 46 11 11  
Astelehenetik egubakoitzera. .... 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan. .... 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan. .... egun osoa
- Arrasate**  
Astelehenetik egubakoitzera. .... 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan. .... 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:  
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak. .... 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea. .... 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak. .... 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak. .... 943 45 87 44
- ERTZAINNTZA**  
Arrasate. .... 943 79 71 99
- SUHILTAILEAK**  
Udal taldea. .... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua. .... 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea. .... 088
- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua). .... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero). .... 943 12 01 62  
Gasa. .... 900 40 05 23  
943 79 78 44
- GARRAIOAK**  
Taxiak. .... 943 79 12 22  
PESA. .... 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza. .... 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuaren egoitza. .... 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron. .... 943 77 01 05

**MEZAK**

- |   |   |
|---|---|
| <b>San Juan parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>09:00 (elebiduna)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (elebiduna)                         | <b>San Andres eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>10:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz) |
| <b>San Frantzisko eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>09:00 (euskaraz)<br>10:00 (elebiduna)<br>12:30 meza nagusia (elebiduna)<br>19:00 (elebiduna) | <b>Santa Marinako eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (gaztelaniaz)<br>Domeka<br>11:00 (gaztelaniaz)                                      |
| <b>Uribarri parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>11:30 (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)   | <b>San Isidro eliza</b><br>Zapatua<br>20:00 (euskaraz)  |
|   | <b>Santa Teresa eliza</b><br>Domeka<br>12:30 (elebiduna)  |

**OHARRAK**

**KORRIKA BATZORDEA**  
Eguaztenean, hilaren 23an, Korrika batzordeak batzorra egingo du AEDko tabernan, 19:30ean. Edozein elkartetako ordezkariak eta bestelako herritarrek esku har dezakete.

**EKIN EMAKUMEAK ELKARTEA**  
Ekin Emakumeak Elkarteak aditzera eman du bazkideei gutun bidez zehaztutako data ez dela zuzena. Martxoaren 17an beharrean, martxoaren 2an egingo dute batzorra. Elkartearen egoitzan izango da (Pablo Uranga 4), 18:30ean.

**ARTELANEN ERAKUSKETA**  
Iñaki Saratxaga argazkilari eta marrazkilariaren lanak ikusgai daude Arregi galerian (Maala kalea) martxoaren 11ra arte.

**ERAKUSKETA HARRESIN**  
Eskolak euskaldundu izeneko erakusketa ibiltaria jarri dute Harresi aretoan. Bihar, zapatua, izango da azkeneko eguna. 18:00etatik 20:00etara dago zabalik.

**KULTURISTEN KOFRADIA**  
Gaur, egubakoitza, Jon Plazaolak eta Kulturisten Kofradiak ikuskizuna egingo dute 3.60 aretoan, 23:00etan, doan.

**AEDrenAGENDA**

**14. KORRIKAREN LAGUNTZAILE EGITEKO AUKERA**  
Korrikaren laguntzaile izan gura duenak AEDra jo dezake. 12 euroren truke, Korrikari lagundu eta deskontuak izango ditu.

**URBANOENORDUTEGIA**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, -Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**  
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**  
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.  
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10 URTEARRASATEN**

**Arrasate Telebistaren bosgarren urteurrena**

Arrasate Telebistak bost urte bete zituenean, programa berezia egin zuten, bost urte horietan egindako programa guztiak gogoratzeke. Horrekin batera, ARKOk lehendakariak eta ATBko arduradunak prentsurrekoa egin zuten. Telebistan lan egindakoei ere esku hartu zuten.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Mesaonotxia"*



Mesaonotxia.  
— Mesaonotxe gainian dago zure erlojuja.

JON IRAEGI

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Danbaka lehiaketarako sailkatu ez ziren taldeen eta bestelako gonbidatuen kontzertuak**

Danbaka lehiaketa dagoeneko bukatu den arren, Danbaka birak jarraitzen du. Hau da, lehiaketarako sailkatu ez ziren taldeen kontzertuak. Joan den asteburuan horietako hiru taldek kilometroen aldeko kontzertua egin zuten Elgetako Espaloian. Horietako baten, Azkaiter Pelox bakar-lariaren, emanaldia entzuteko aukera izango dugu domekan.

Bergarako Azkaiter Peloxek kontzertu dibertigarriak egiten ditu, eta beste talde batzuen kantuak jotzen ditu: The Who, Bap!...

Zapatuan, berriz, Danbaka lehiaketako finalean gonbidatu moduan esku hartu zuen Split 77 taldearen kontzertua izango da entzungai. 80ko hamarkadako pop-rock iluna egiten dute, eta, besteak beste, The Cure eta Itotzen bertsioak jotzen dituzte.

**ASTEARI GAINBEGIRATUA**

Europako Kooperatiben Elkarteke lehendakari Adrian Zelaia-ri Europako Konstituzioaren gainean egindako elkarrizketa berriro emango dute.

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Eguaztena, 9	<b>-2 °C</b>
<b>MAXIMOA</b> Eguena, 10	<b>16 °C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>99,8 L</b>

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 9	14 °C	-2 °C	- l/m²
Eguena, 10	16 °C	1 °C	- l/m²
Egubakoitza, 11	15 °C	-1 °C	3,2 l/m²
Zapatua, 12	14 °C	7 °C	6,1 l/m²
Domeka, 13	10 °C	9 °C	29,3 l/m²
Astelehena, 14	8 °C	5 °C	38,4 l/m²
Martitzena, 15	7 °C	4 °C	22,8 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

- ZAPATUA**  
10:00 **Asteko gainbegiratua:** Adrian Zelaia, Europako Konstituzioaren gainean; Jose Ramon Vitoria, musikaria eta irakaslea; Pello Zabala, eguraldi aditua...
- 16:00 **Danbaka:** Split 77
- DOMEKA**  
10:00 **Asteko gainbegiratua.**
- 16:00 **Danbaka bira:** Azkaiter Pelox
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00-11:00 **IGO AUTOBUSERA!**  
Albistegia.  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).  
Elkarrizketak.  
Zozketak, etab...
- 11:05 **Musika**
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 12:20 **Zorion agurren tartea.**
- 12:30 **Izarren ordua:** abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegia.**
- 14:00 **IGO AUTOBUSERA! (errep.)**
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

## KALEINKESTA/ Kalamue gaixorik dauen jentiei lagunketako ibilli gure daue. Ze pentsetan jatzu?




**SAGRARIO KORTABARRIA**  
Langillie



**JON ZABALA**  
Ikaslie



**JOSE ALBERTO CALLEJA**  
Langillie



**MANEX AGIRRE**  
Ikaslie



**KONTXI MARTINEZ**  
Etxekoandrie



**ARANTZA UGALDE**  
Etxekoandrie

Medikuen kontrolakin bada ondo ikusten dot, beste medizina bat izengo balitz moduen. Jentiek esango dau hori drogie dala, baiñe neuri ez jat idea bape txarra pentsetan.

Gaixuen osasunandako ona bada kalamue ibilttie, zelan pentsauko jat ba txarto? Jentien ustez drogie dala? Beste droga batzuk be legalizate dauz, eta horreik ez daue onik egitten.

Kalamue ibilttien helburue bada gaixorik dauen jentiei lagunketie, neuk ondo ikusten dot. Hori bai, kontrolaute egon biherko leuke, eta helburu horretarako bakarrik ibilli.

Edozein gaixotasun dala eta pertsonie sufriduten badabil, eta kalamuek sufrimendu hori txikitu egitten badau, zergaittik ez? Helburu terapeutikuekin ibiltie oso idea ona da.

Bueno, neuk pentsetan dot kalamuek legalizate egon biherko leukela, gure daue-nak ibiltteko. Dana dala, helburu terapeutikuekin ibilli gure badaue, neuri oso ondo pentsetan jat.

Oin arte pentsau izen dot horreik drogak eta hola-kuek diela, baiñe hasi naz kanbixetan. Radixuen entzun dot gaixuendako ona dala, hortan... Tabakue eta alkohola bai diela drogak!

### TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK LORE BAKO LORATEGIAK** Irakurle batek aditzera eman digu aspalditik herriko lorategi gehienak lore barik daudela. Lagun horren esanetan, azkeneko urteotan, lorategiez arduratzen den enpresa aldatu zutenetik, negu osoan ez dute lorerik landatzen. Kontu horrekin haserre dagoela esan digu, eta Udalari eskatzen dio lorategiak urte osoan apainduta egon daitezen ahaleginak egiteko.

### ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7	KIROLA /8	KULTURA /14
<b>Gurasoendako eskola bereziak</b> Arrasateko Euskalgintzak eskoletako umeen gurasoendako eskola bereziak antolatatu ditu.	<b>Gipuzkoako txapeldun</b> Bolinagak eta Agirregabiriak infantil mailako Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten zapatuan.	<b>Txatxilipurdiren webgunea</b> Txatxilipurdi elkartearen webgunea berriro dute, eta sailak estreinatu dituzte.

### ASTEKODATUA

# 8.157

**EURO ITSASIKARAK KALTETU ZITUENENDAKO**

Arizmendi Ikastolako batxilergoko ikasleek itsasikarak Asian kaltetutakoei laguntzeko zozketa solidarioa egin dute. Horren bitartez, ikasleek 8.157 euro batu dituzte.

### BESTEKEKESANA

**“** Reala ikusten nengoen eta pilota partidua jarri nuenerako, Aimar eta Otxandorena 12 eta 3 irabazten zeuden. Ez zeukan kolorerik, eta bat-batean ez dakit zer gertatu zen. Aimar ez dute aspaldi hain triste ikusi. Asierrek eta Zearrak oso ondo jokatu zuten, batez ere Zearrak. Apustuak ‘doble a sencillo’-n hasi ziren, mila euro bostehunera. Horren ostean, 30 edo 20 milara jarri ziren, eta 20koak irabaziko zuen. (...) Gustuko dut Olaizola II, baina aspaldian ez dute ondo ikusten. Enpresak asko zaindu du eta horregatik anaiek ika-mikak izan dituzte. (...) Piloten aukeraketak garrantzi oso handia dauka, uste dugun baino handiagoa. Enpresek horrekin jokatzeko dute. Anaia Pakok oso ondo zekien hori, urte askoan ibili zen-eta horretan”

**JUANITO ARRIARAN**  
‘ARRASATE IRRATIA’/05-02-14

### HERRITARRENBERBAK/ Aitor Zabalo



*Kooperatibako sortzaileei*

**O** raintsu irakurri dut kooperatibako sortzaileei Gipuzkoako Aldundiak martxoan domina bat eta plaka bana emango dizkiela. Hori dela eta, diputatu nagusia etorri da Arrasatera eta sortzaileekin edo euren familiekin egon da.

Arrasate eta inguruan egin diete zelanbaitoko errekonozimendua, eta On Jose Maria Arizmendiarrak baditu hainbat oroigarri inguru honetan: kale bat bere izenarekin, eskultura bat bere izena zuen eskolan bertan eta Otarorako jauregian (Urkulutik hurbil) bere museotxo. Baina, besterik ez. Berarekin batera abentura honetan hasi zirenek ez dute ezer. Sortutakoa asko izan arren, orain arteko esker on guztia hori izan da. Ulgorri izena eman ziotenentzat ez dute sekula omenaldirik ikusi, nahiz eta eurek bakarrik ez zuten omenduak izan behar. Omenduak eurek ere behin eta berriro esan dute goraipamen hori beste jende askoren artean banatu

nahiko luketela. Pena litzateke Union Cerrajerak duen omenalditxo bera izatea. Hau da, lantegia zegoen inguruan honako hau jartzen duen plakatxo bat, besterik ez: “Makinatxo bat lan egin digun makinatxo bati”. Berandu. Nire ustez omenaldia merezitakoa da, ibar honek asko zor die eta Markinatik etorritako apaiz gazte hari eta beragan sinistu zuten gazte haiei. Orduko Ulgorrek eta oraingo Fagor-MCCk lana eta ongizatea ematen digu makinatxo bati. Eta gure esker ona igorri beharko genieke, nahiz eta ez dute uste hori egin zutenek asmo horren atzetik zebiltzanik egindako guztiak egin zituztenez. Hobe berandu sekula baino, baina ordua zela uste dute. Amets honen sortzaileei (ez goian aipatutakoak bakarrik, hasieratik eurekin lanean egon ziren adiskideei ere) eta haien familiei zor diegu esker ona eta errekonozimendua. Mila esker guztioi.

**“Abentura honetan hasi zirenek ez dute ezer. Ez dute sekula omenaldirik ikusi, nahiz eta eurek gain, beste batzuek ere merezi duten”**

**Arrasate**

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

**ZUZENDARIA**  
Iker Barandiaran  
**ERREDAKZIOA**  
Xabier Urzelai  
Ubane Madera  
**MAKETAZIOA**  
Alex Azkarate  
**ZUZENTZAILEA**  
Sergio Azkarate

**PUBLIZITATEA**  
Natali Martínez  
Imanol Elortza  
Amaia Mundiñano  
**ADMINISTRAZIOA**  
Agurtzane Gainzarain  
Ane Berebizar  
Iratxe Bengoa

**BANAKETA**  
Marta Leturia  
**LEGE-GORDAILUA**  
55-1124/88  
**ISSN**  
0214-4654  
**TIRADA**  
7.350 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala

## ASTEABIHITZETAN

## Tranbiaren proiektua ikusgai

Debagoieneko tranbiak badu erakusketa. Trazatuaren proiektua dagoeneko amaitu du Eusko Jaurlaritzak, eta astelehenean jarri zuten ikusgai Monterronen.

Ekitaldian, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan sailburu Alvaro Amann, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarri eta bailarako alkateak izan ziren, besteak beste. Debagoieneko tranbiak, 17,5 kilometroko trazatuari esker, ordu erdi pasatxoan lotuko ditu Bergara eta Aretxabaleta. Martitzenean amaitzen zen alegazioak egiteko eguna, baina hilabete luzatu dute epea.

## Jausoro, mendi federazioko presidente

Joan den zapatuan egin zuten, Elgetan, Euskadiko Mendi Federazioko presidentea aukeratzeko batzarra. Arantza Jausoro gasteiztarra eta Alvaro Arregi arrasatearra ziren bi hautagaiak, eta Arantza aukeratu zuten.

Ez irabazi arren, berba onak izan zituen Alvarok: "Ondo defendatu du bere proiektua, eta, esan duena egiten badute, datoen lau urteak azken lau urteak baino askoz ere emankorragoak izango dira". Horren harira, Alvarok azpimarratu zuen bi hautagaien programak antzerakoak izan zirela, baina gasteiztarrek botoa batzeko lan pertsonala egin zutela".

## Euskalduntzearen gainean erakusketa

Bihar amaituko da Harresi aretoan egon den euskalduntzearen gaineko erakusketa. Erakusketa horren helburua izan da Euskal Herrian eskolak euskalduntzen ez dituen milaka ume daudela ezagutaraztea. Horren gainean informatzeko, antolatzaileek panel informatiboak erabili dituzte. Antolatzaileak izan dira Euskal Herriak Bere Eskola, EHE, AEK, Ikasle Abertzaleak, Sortzen Ikasbatuaz, LAB, Ikastolen Konfederazioa, Kontseilua, Oinarriak eta EHko Gurasoen Elkarteak.



## Zortzi mila euro tsunamiaren biktimendako

Joan den urte amaieran tsunami batek sekulako sarraskia egin zuen Asian, eta horri aurre egiteko ekimen asko izan dira. Hala, Arizmendiko batxilergoko ikasle talde baten ekimenez zortzi mila euro batu dituzte, Asiara bidaltzeko. Zozketa solidarioa egin zuten, eta Maialen Zubizarreta eta Paki Arana izan dira irabazleak.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

## Gainontzekoendako onena

Askoren ahotan daude asteburuan ospatuko diren hauteskundeak. Herritarrek ez diete jaramon handirik egin, baina EAJk izan ezik gainontzeko alderdi politiko eta sindikatuek ezezko borobila eman diote Europako Itunari. Horretarako, mota askotako argudioak azaldu dituzte. Itunaren aldekoek, berriz, betikoa: "baiezkoa ematen ez

badugu, kanpoan geldituko gara", eta abar.

Ez naiz luzatuko. Horra hor, orain dela gutxi, erretiratu batek esan ziguna: "Euroak onura egingo zigula ere esan ziguten, eta ondorioak ikusi besterik ez dago".

Gehien amorratzen nauena da batzuek beti dakitela gainontzekoendako onena zer den. Horren

harira, astean irakurri dut Espainiako Barne Saileko ministroa honako hau aztertzen hasi dela: autoa gidatzean erretzea debekatzeta, hain zuzen ere.

Horri irakurketa bat baino gehiago egin diezaiokigu: batetik, arazoari adarretatik heldu beharrea, erretzaileen kontra egiten dabilzan jazarpena (eta oraindik egingo dutena!); eta bestetik, zer den ona eta zer den txarra inposatzeko ohitura astun hori.

## ASTEKOIRUDIA



## LANA BILATU GURA DUTENEI LAGUNTZEKO, KUTXA ZEHARO ZABALDU DUTE

Debagoiendarrak askotan kexatu dira erakundeek ibarra ahaztuta dutelako, eta baliabide gehienak hiriburuan daudelako. Hamaika adibide daude hori egiaztatzen dutenak. Oraingoan, berriz, bada horren aurkako ekimen bat. Kutxa Zeharo egitasmoak egoitza zabaldu du Arrasaten, Otolara kalean. Donostia

tiakoarekin, Gipuzkoako bigarrena da. Egitasmo horrek gizartetik kanpo gelditzeko arriskuan daudenei lana aurkitzea du helburu: etorkinak, elbarriak, 40 urtetik gorako langabeak, preso ohiak. Horretarako, lagun horiekin eta enprekin harremanetan jarriko dira. /I.B.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

## Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

ileapaindegia  
peluqueria

GORKA

Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00  
Larunbatetan 08.00-14.00  
Bainuetxe 10 - 943 77 13 78  
ARETXABALETA

BASATI  
TABERNA

PINTXUAK BOKATAK ETA TRAGUAK

943 711767

BOTEPRONTUEN

# Atxen Arantzabal

## ALERGOLOGOA

XABIER URTZELAI

**Madrilgo Gregorio Marañonen egin euen Atxenek Alergologia ikasketak, oin dala 11 urte. Mondraguen Herriko Plazan dauko despatxue, baiñe Donostiara be jueten da lanera. Jeneralien arlo pribauen egitten dau lan, baiñe Osakidetzarako be ibiltten da.**

**Alergologue izenda, zeuk badauketzu alergixaik?**

Ez, momentuz ez. Ez neuk eta ezta neure familixako inok be.

**“Momentuz”, esan dozu. Itxuraz, ez da jaixoten garenetik eukitten doun gaixotasune.**

Ez, ez. Euki geike gaixotasun hori desarrolletako aukera haundixae edo txikiñae, baiñe egon zeike 20 urtekin eta alergixa barik, eta 25 urtekin alergikue izen.

**Aspaldi esan eusten mediku batek danok garela alergikuek, baiñe pasau leikela Brasilgo landare batei alergixie euki, eta bizi danien ez kontureketie.**

Neu ez nator horrekin bat. Jeneralien inguruen eukitten doun elementuei eukitten dutzeu alergixie, hori desarrolletan dou. Euskal Herrixen normala da akaruei eukittie, eta Andaluzian olibonduie eukittie. Baiñe ez neuke esango danok garenik alergikuek.

**Badator udabarrixe...**

Bai. Polenai dagokixonez, Euskal Herrixen garai txarrena ez da martxue eta apirillan izeten, hamen maiatza eta ekaiña izeten die txarrenak. Eguzkixek joten dauen egunetan kontuz ibilli biher...

**Gomendixoik?**

Gomendixo asko dauz: betaurrekuek ibilli, mendire ez juen, bizikletan eta motorrien ez ibilli, automobilleko leihuek igota eruen, etxekuek be itxitte euki... Eta medikaziñue hartu.

**Bakunak: bai ala ez?**

Bai, neuk gomendatzen dot bakunak hartzie. Kontuen euki biher da, baiñe, zeri dutzeun alergixie, zenbateraiñokue dan...

**Edadiekin, alergixie gehixaura jueten da?**



*“Euskal Herrixen normala da akaruei alergixie eukittie; Andaluzian, barriz, olibonduie”*

Ez, edadiekin txikittu egitten da, baiñe pertsona nagusixek baka- rrik igerten daue hori.

**Zergaittik dauz gerueu eta alergiko gehixau?**

Teorixa asko dauz: kontami- naziñue, tabakue... Gerueu eta kon- takto haundixae daukou alerge- nuekin; adibidez, gerueu eta aka- ro gehixau daukou etxien, gerueu eta animalixa gehixau sartzen dou etxe txikiñetan... Horreik die arra- zoi batzuk, baiñe seguro gehixau egongo diela.

**Zeun laneko gauza onena?**

Gauza politte izeten da perso- na batei daukon problemiei aurre egitten lagunketie.

**Eta txarrena?**

*“Udabarrixen, alergikuendako hoba da mendire juen biherrien hondartzara juetie”*

Ez dounien asmaketan horrei pertsona horrei zelan lagundu.

**Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondragueri?**

Ospitalien alergologo bat, Gas- teizen saturaute dauz-eta.

**Ze dauko ona Mondraguek?**

Herrixen gauza barrixek asma- ketako egon dan eta dauen abili- dade edo gaittasune.

**Eta ze dauko sobran?**

Automobillek.

**Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.**

*Mar Adentro / Vargas Llosa idazlien La ciudad y los perros / The Cors gustetan jat.*

**Kapritxo bat.**

Libre eta bakien bizi izetie.

## NIREBIDAIAHURA / Amaia Iriarte

Mexikora / 2004ko abuztuan

**A**maiak Alemanian egin ditu hainbat hilabete, Medi- kuntzako ikasketak amaitzen. Eta udan, Mexiko- ra joateko aukera izan zuen, praktikak egitera; bi bider pentsatu barik esan zuen baietz: “Hegazki- na hartu baino egun gutxi lehenago Mexikoko hainbat lagun ezagutu nituen. Hara joan aurretik, nire’ asmoa zen Gua- dalajarako aireportuan lo egitea, baina Alemanian egin- dako lagun mexikarrek esan zidaten horrelakorik ez egiteko. Lagunak zituzten Guadala- jaran, eta aireportura etorri ziren nire bila. Eskerrak”.



*“Ikustekoa da Mexikoko ospitaletan nola egiten duten lan”*

Amaiak Monterreyn egin behar zituen praktikak: “Mun- duko hainbat lekutatik etorri- tako 70 lagun izan ginen prak- tikak egiten. Bi aste egin geni- tuen lanean eta asteburuetan inguruak ezagutzeko bidaia- txoak egiten genituen. Espe- rientzia ona izan zen han lan egitea; konturatu nintzen hemengo edozein ospitalek egun baterako daukan aurre- kontuarekin han asteak egin- go zituztela. Herritarrek ordu mordoan egiten zituzten auto- busean hamabost minutuko kontsultara joateko. Horrek guztiak erakusten du hemen zelan bizi garen”.

Esan bezala, asteburuak kanpoan egiten zituzten: “Lehen asteburuan Real de Catorcera joan ginen; urte batzuk lehenago meategia zegoen Real de Catorcen, baina, esaten dutenez, istripuren bat edo beste izan zuten, eta, beldur- tuta, meategia itxi egin zuten. Leku lasaia zen, ikusteko modukoa. Hori bai, erosotasun handirik ez genuen izan asteburu hartan. Hurrengo asteburuan Zacatecas bisita- tzeraz joan ginen. Bost lagunuen artean auto txiki bat alo- katu, eta hara joan ginen. Itzultzerakoan, eguraldi txarra egiten zuen, eta konturatu ginenerako militarrek zeuden errepide erdian. Azkar gindoazen, 90 kilometro orduko abia- duran-edo, eta autoa gelditu guran ia errepidetik atera ginen. Nahiko barre egin zuten militarrek”. Lan kontuak amai- tutakoan hasi zuen Amaiak Mexikoko barrualdea ezagu- tzeko benetako bidaia. Hori, baina, datorren astean.

XABIER URTZELAI



Monterreyko ospitalean lanean zebiltzan lagunak.

**LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK**

**AGR**

García Ripa

**ZAHARBERRITZEAK**

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

**Erakusketa eta biltegia:**  
Kale txiki 3 behea (Musakola)  
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

**Metal aroztegia eta PVC**  
Leihoak eta itxierak

**Egur aroztegia**  
Leihoak  
Ateak  
Armairu enpotratuak  
Armairu-fronteak  
Mota guztietako zoruak.  
Lixatua eta bernizatua

**Osagarriak**  
Neurrira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

**OSORIK PUB**

Ignazio Zuloaga 4  
ARRASATE

**Hemen GARBIKETAK**

- Garbiketa orokorrak
- Obra bukaera eta erreformen garbiketak
- Industria garbiketak
- Mantentze garbiketak

Tel.: 943 71 48 45  
Faxa: 943 71 30 58

Intxaurtxueta 16, behea. Eskoriatza

[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)



PPK eta PSE-EEK ez ezik, gainerako alderdiek Arrasateko Egitamu Orokorren alde bozkatu zuten.

U.M.

HIRIGINTZA/ Arrasateko Egitamu Orokorra onartu dute, aldaketak egin ostean

## Eskualdeko Ospitalea berriro ere izan zen eztabaidagai

UBANE MADERA

**Oposizioaren kontrako botoekin onartu du udalbatzarrak Arrasateko Egitamu Orokorra. Astelehenean egin zuten gai hori lantzeko ezohiko osoko bilkura. Orain, Gipuzkoako Foru Aldundira bidaliko dute, eta han sei hilabete dituzte onartu edo ez erabakitzeke.**

Berriro ere Eskualdeko Ospitalea eta inguru hura izan zen udalbatzarreko alderdi politikoen arteko desadostasunaren arrazoia. Itziar Lamarainek argi utzi zuen horixe dela PPK duen arrazoi bakarra Egitamu Orokorren kontra bozkatzeko. Gaur bera adierazi zuen PSE-EEko bozeramaile Paco Garciak.

Gogora ekarri beharra dago bi alderdi horiek Eskualdeko Ospitalea berria eraikitzearen aldekoak direla, Zalduspe ez den beste lekuren batean. Egitamua bitartez, aldiz, Osakidetza gaur egungo ospitalea handitzeko baimena emango dio Arrasateko Udalak. Horrexegatik bozkatu dute kontra bi alderdi politiko horiek.

Horren harira, Paco Garciak salatu du EAJK interes bereziak dituela Arrasateko zenbait gune indartzeko; Zalduspe, esaterako. Halaber, Eskualdeko Ospitalearen gaia lantzeko orduan EAJ ilun jokatzeko dabilela ere salatu du.

Inazio Lakuntza alkateak, berriz, ukatu egin ditu salaketok. Adierazi digu EAJK ez duela inolako interes berezirik, ez han eta ez beste inon. Gaineratu digu

euren asmoa dela Osakidetzaekin adostea zein den irtenbiderik egokiena, zein den ospitale-arendako lekurik egokiena, oraingoa edo besteren bat. Horrekin batera, gaineratu digu edozelan ere Zalduspe inguru hura berriro urbanizatzeko asmoa dutela.

Egitamu Orokorrekin lotuta, berriz, esan digu lan handia egin dutela, oso sakon. Eta zenbait arlo gertu daudela garatzeko. Edozelan ere, nabarmendu digu euren helburu nagusia dela herrian etxebizitzak eraikitzea.

### AURRENEKO ALDAKETAK

1995ean hasi ziren Udalean Arrasateko Egitamu Orokorra lantzen. Arau subsidiarioak errebi-

satu behar zituzten sasoi hartan. Eta erabaki zuten hori egin beharrean Arrasateko Egitamu Orokorra egitea. Eta egin egin zuten. Hala, Xabier Zubizarretaren azkeneko agintaldiaren amaiera inguruan onartu zuen udalbatzarrak. Edozelan ere, udal talde berria sartu eta berehala egin zizkioten aldaketak. Esaterako, hasierako Egitamu Orokorra onartu zuen Etxe Txikiak batzuk botatzea. Hori aldatu egin dute.

Hain zuzen ere, aldaketak egin eta gero, Egitamu Orokorra egokitu egin dute, eta horixe da asteleheneko batzarrean onartu zutena. Orain, Diputazioak eman beharko dio behin betiko onepena, sei hilabete baino lehen.

### PSE-EE-REN KRITIKAK

Bestelakoan artean, esan beharra dago Egitamu Orokorra izan zela asteleheneko batzarreko gai bakarra, baina, hala ere, PSE-EEko Paco Garciak batzarra aprobetxatu zuen alkateari zera aurpegiatzeko: EAJz eta EAZ gainera ez zutela bestelako alderdi politikorik gonbidatu joan den astean Polmetasarekin sinatu zuten hitzarmen ekitaldira. Ekitaldian izan zen diputatu nagusiaren presentzia ere kritikatu zuen.

Alkateak emandako esplikazioen artean, esan zuen zenbait alderditako ordezkariak arazo barik izan zirela ekitaldian. Eta gaineratu zuen diputatu nagusia ekartzea egoki ikusi zutela, batez ere, Polmetasa nazioarte mailako lantegia delako. Diputatuari berari ere egokia iruditu zitzaioela esan zuen alkateak.

*PSE-EEK eta PPK adierazi zuten ospitalea dela kontra bozkatzeko arrazoi bakarra*

*Helburu nagusia herrian etxebizitzak eraikitzea dela adierazi du alkateak*

Arrasateko  
euskalgintza

## Gurasoendako eskola bereziak antolatu dituzte

U.M.

Euskararen erabilera bultzatzeari eta hezkuntza kalitateari begira, egitasmo berezi bat abiaraziko du laster Arrasateko Euskalgintzak: eskoletako haurren gurasoei euskara eskola bereziak emango dizkiete, hain zuzen ere.

Herriko zenbait eskolatatik keza iritsi zen Euskalgintzara: hizkuntzaren eraginez, zenbait gurasok ezin izaten zirela umei lagundu eskola kontuetan.

Hori ikusita, Euskalgintzak erabaki zuen ohiko euskalduntze ikastaroaz gainera herrian dauden beharretara egokituako ikastaroak ere sortzea. Hala, eskolan dabilzan haurren gurasoendako ikastaroak antolatzea pentsatu dute, besteak beste.

### HIZKUNTZAREN ARABERAKO TALDEAK

Bi ikastaro mota antolatuko dituzte: haurra Lehen Hezkuntzan duten guraso erdaldunei zuzendutakoa; eta haurra Lehen Hezkuntzan duten guraso euskaldunei zuzendutakoa. Lehenengo taldearen kasuan, helburua zera izango da: umeek eskolan ikasten dituzten kantuak, jolasak... erakustea. Baita oinarri-oinarrizko hiztegia ere (agurrak, ipuinetakoa hiztegia...).

Guraso euskaldunei, berriz, umeek etxera eramaten dituzten etxeko-lanak egiten laguntzeko beste euskara erakustea da helburua. Irakasleendako

ohar sinpleak egiten ere erakutsiko diete, esaterako.


### 50 GURASOK EMAN DUTE IZENA

Eskola berezi horien eskaintza ikastetxe guztietan zabaldu du Arrasateko Euskalgintzak. Eta, oraingoz, ia 50 gurasok eman dute parte hartzeko izena. Orain, taldeak osatzen dabilta. Ikastaroen lekua eta orduetgia aukeratzeko, hain zuzen ere. Eskolak otsailaren bukaera aldera hasiko dira.

Arrasateko Euskalgintzak pentsatutakoaren arabera, hasieran, 30 orduko moduluak antolatuko dituzte. Baina asmoa da aurrera begira halako eskolek jarraipena izatea, eta beste eskaintza batzuk egitea.

Irakasleei dagokienez, Arrasateko bi euskaltegiak irakasleak ibiliko dira eskolak ematen (Erdu-AEK eta Udal Euskaltegia).

Ekimena bera antolatzen, berriz, Arrasateko eskola guztiak, bi euskaltegiak eta Emun kooperatiba ibili dira. Arrasateko Udalaren laguntza ere izan dute.



Badakitzu ikasketak euskeraz eitteko eskubide daukatzule?

Zure eskubide hau ez dala beteten?

**EZ IXILDU!!!**  
ALDARRIKATU ETA SALATU

[www.behatokia.org](http://www.behatokia.org) edo deitu

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN  
**BEHATOKIA**

EUSKARAREN  
TELEFONOAK 902 194 332

ZERBITZUAK/ KOTXEAK MANTENTZEKO EREMUAREN BIRMOLDAKETA

# Autoak garbitzeko Uribarriko eremua egokitu egingo dute

UBANE MADERA

Uribarri auzoko Kotxeak Mantentzeko Eremuaren gaineko txostenak dioenez, gaur egun, erabiltzaileek edozein lekutan garbitzen dituzte automobilak. Dio, baita ere, olio isuriak izaten direla, besteak beste.

Aramaio erreka kolektorearen lanek Uribarriko Kotxeak Mantentzeko Eremuan eragina izan

behar dutela eta, Udalak erabaki du hori aprobetxatzea Uribarriko eremua berritzeko. Bi helburu ditu: ingurua birmoldatu eta, oro har, izaten diren isuriei tratamendu egokia eman, legearen arabera.

## ERRESPECTU FALTA

Udaletik jakinarazi digutenez, gaur egun, erabiltzaileek han inguruko edozein lekutan garbitzen dituzte ibilgailuak. Olio aldaketak eta edozein modutan egiten dituz-

tela gaineratu digute, eta horren ondorioz askotan isurketak izaten direla. Are gehiago, noiz edo noiz erabilitako olioen edukiontzia erre izan dutela ere gaineratu digute.

Horrekin batera, Udalak egindako txostenaren emaitzek diotenez, urak arazteko instalazioak hasieratik eman ditu arazoak eta olioak bereizteko aparatuaren egoera ez da oso egokia. Gainera, gaur egun, hondakin solidoen artean ez dituzte bereizten arriskuak diren produktuak arriskuak ez direnati.

Bestalde, eremua birmoldatzeko asmoarekin, udan analisiak egin zituen Udalak inguru hartan, eta Aramaio errekan detergente eta burdin isuriak aurkitu zituen.

## HONDAKINAK TRATATZEKO ASMOA

Hala, birmoldaketarekin egingo dutena zera da: ibilgailuak garbitzeko, sikatzeko, olioak aldatzeko... Lan horiek guztiak egiteko guneak ondo bananduta ipini. Garbitzeko eremuko urak zuzenean kolektore botatzeko sistema egokituko dute eta gainerako hondakin guztiak behar bezala tratatu dituzte (olioak, filtroak, balazta likidoa...).

## KOLEKTOREAREN LANekin BATERA

Oraindik ez dute zehaztu noiz hasiko diren lanak egiten, erreka kolektorearen lanen arabera erabakiko dute hori. Aurrekontua, berriz, 133.000 euro pasatxo da.



Gaur egun, erabiltzaileek edozein lekutan garbitzen dituzte ibilgailuak.

U.M.



## Bide mozketan, Jarrai-Haika-Segi taldeen kontrako epaiketarengatik

Martitzen iluntzean zenbait gaztek autoen joan-etorria eten zuten Otorra Lizentziaduna kalean. Ordu laurdenez izan ziren han, eta auto ilara luzeak eragin zituzten, lantegietako irteera orduarekin bat egin zuelako protesta ekitaldiak. Hain zuzen ere, egunotan Madrilen egiten dabilzan Jarrai-Haika-Segi taldeekin lotutako epaiketarengatik egin zuten protesta. /U.M.

## Ekarri dituzte Monterron parkerako zuhaitz berriak

U.M.

Oraingo astean iritsi dira Belgikatik Monterron parkerako zuhaitz berriak. Eguraldiaren eraginez, datorren astelehenean, hilak 21, hasiko dira landatzen. Bitartean, Monterronen utzi dituzte.

Zuhaitzak ekarri eta berehala landatzeko asmoa zuten, baina jakinarazi digute eguraldiaren eraginez lurra bigunegi dagoela eta ez dela komeni orain landa-

tzea. Horrenbestez, asmoa da astelehenean hasia landaketa lanak egiten, betiere eguraldiak uzten badie.

## ESPEZIE AUTOKTONOAK

Guztira, 39 zuhaitz erosi dituzte Belgikan. Zuhaitz autoktonoak dira: astigarrak, pagoak, haritzak, ezkiak... Orain guztiak landatuko dituzte, eta gero, ondo egokitu direnak utzi egingo dituzte eta gainerakoak kendu, bestela Monterronerako zuhaitz larregi izango dira eta.



CESPAkoek Monterronen laga dituzte zuhaitzak, landatzeko zain.

U.M.

## Elurteetarako zerbitzuak hobetzea aztertzen dabilza

U.M.

Urtarrilaren amaierako elurtean udal zerbitzuak egin zituzten lanen txostena aurkeztu dute. Txosten horren arabera, arazoak izan ziren herriko zenbait gunetan, bereziki izotzak eraginda.

Txostenak dio, besteak beste, urtarrilaren 26ko izoztearen aurrean, elurra kentzeko makinak ez zirela efektiboak izan eta gatz bantzaile berria erabili behar izan zutela. Edozelan ere, gaineratzen du gatzarekin ere arazoak izan zituztela: 3.000 kilo gatz zituzten

Arrasaten. Ordea, 110.350 kilo gatz eskuratu behar izan zituen Udalak eta 76.350 kilo erabili zituzten.

Datuen arabera, izozte handiak espaloietan bideetan baino arazo gehiago sortu zituen, batez ere aldapetan. Eta eguen arratsaldera arte ezin izan zituzten arazoak konpondu. Baserrin bideen kasuan, berriz, txostenak dio gehienetara iritsi ahal izateko moduan garbitu zituztela, eta oso kasu puntualetan ezin izan zituztela bideak ondo garbitu.

Bukatzeko, gaineratzen dute elurteetako zerbitzuak zelan hobetu aztertzen dabilzala udal zerbitzu teknikoak.

## LABUR

### Automobilien mekanikaren gaineko ikastaroa antolatuko dute, emakumeendako bereziki

Prestakuntza bako langabeendako —bereziki, emakumeendako— antolatu du Udalak ikastaroa, horietan izaten direlako laneratzeko zailtasun handienak izaten dituztenak. Astelehenean, hilak 21, hasiko da eta ekainaren 23an bukatu. Guztira, 389 orduko izango da eta 12-15 langabeendako lekua dago. Orokorrean, mekanikari laguntzaile moduan automobilgintzako lantegi eta kontzesionarioetan lan egiteko bideratuta dago, lan merkatuak eskatzen duena kontuan hartuta. Ikastaroa Arrasate-Aretxabaleta Institutuko automobilgintza instalazioetan emango dute; irakasleak ere bertakoak izango dira.



XABIER URTZELAI

Eguaztenean Uarkapen harrapatu genituen Ibai Bolinaga, Ander Zubizarreta eta Iker Agirregabiria, taldekideekin entrenatzen.

## PILOTA

## Infantil mailako pilotariek Arrasatera ekarri dute Gipuzkoako txapela

Joan den zapatuan jantzi zuten txapela, Egiako bikoteari 18-17 irabazita

XABIER URTZELAI

**Txapelarekin, baina deskantsu barik. Uarkapen harrapatu genituen egubakoitzean Ibai Bolinaga, Ander Zubizarreta eta Iker Agirregabiria. 28 urte igaro eta gero, hiru gaztetxo horiek ekarri dute Gipuzkoako txapela Arrasatera.**

Eta euren aurretik horrelako txapelketa bat irabazi zuen azken arrasatearra Mauri Zubillaga izan zen, euren entrenatzailea.

Zapatuko finala ezin gogorra goa izan zen. Arrasateko taldean, Ibai Bolinaga atzelaria da, Iker Agi-

rregabiria aurrelaria eta Ander Zubizarreta ordezko pilotaria.

Finala Bolinagak eta Agirregabiriak jokatu zuten, eta kostako zaie final hori ahaztea. Agirregabiriak azaldu digu partiduaren nondik norakoa: "Atzelariendako oso partidu gogorra izan zen. 16-12 ginen aurretik, baina ordurako igartzen zen Ibai nekatuta zegoela. Gainera, min hartu zuen eskuan, eta ez zidan ezer esan". Norgehiagokako azken txanpan sartu ziren aurrelariak jokoan, Ibaik jarraitu du berbetan: "Zorte txarra izan genuen, eta hainbat pilota bota genituen txapara". Donostiarrek berdindu egin zuten

norgehiagoka (16-16) eta baita markagailuan aurreratu ere (16-17). Arrasateko aurrelaria, baina, ez zen ezkutatu; txokoan utzi zuen pilota, kontrarioa iritsi zen, baina pilota ona utzi zion Bolinagari, eta hark ez zuen barkatu (17-17). Azken tantoan, Donostiako aurrelari abilaren bi dejada eraman eta gero, Agirregabiriaren erantzuna etorri zen; ederto gurutatu zuen zabalera, inor iristen ez den lekura (18-17).

Bihar, 16:30ean, Arrasateko alebin mailako pilotariek Bergarakoen kontra jokatu dute Gipuzkoako eskola mailako txapelketa, Aretxabalean.

## ZALDIBARARETOFUTBOLA

## EMAITZAK

HLB 108 - Irati Taberna	1-2
Dribling - Goma2	2-0
AC Surcos - Saukelu Scream	5-7
Lasagabaster - Tomahawk	6-2
Abokajarro - Iriztu Taberna	7-5
La Kuadrilla - Torpedo Musakola	6-8
Manhattan Pippol - AT Celaya	2-5
Ekipo Aldeano - You Know!	2-7
Betrayer - Billy & The Cowboys	5-3

## PARTIDUAK

## OTSAILAK 19, ZAPATUA. EPAILEAK

11:00: Dribling - Billy & The...	Torpedo
12:00: Torpedo M. - AC Surcos	Fuxion
13:00: Abokajarro - Fuxion	AC Surcos
16:00: AT Celaya - Ekipo Aldeano	HLB 108
17:00: HLB 108 - Betrayer	AT Celaya
18:00: Manhattan - Irati Tab.	Betrayer

## OTSAILAK 20, DOMEKA. EPAILEAK

11:00: Goma2 - La Kuadrilla	Saukelu.
12:00: Iriztu - Saukelu Scream	La Kuadrilla
13:00: Lasagabaster - You Know!	Iriztu

Deskantsua: Tomahawk.

## SAILKAPENA

## MULTZO BAKARRA

	P	J
1. You Know!	18	11
2. Irati Taberna	17	11
3. AC Surcos	15	11
4. Betrayer	14	10
5. Saukelu Scream	14	10
6. Dribling	13	11
7. Lasagabaster	13	9
8. Iriztu Taberna	12	10
9. AT Celaya	12	10
10. Goma2	10	10
11. La Kuadrilla	10	11
12. Billy & The Cowboys	9	10
13. HLB 108	8	11
14. Torpedo Musakola	7	11
15. Abokajarro	7	10
16. Fuxion	6	9
17. Tomahawk	6	11
18. Manhattan Pippol	4	10
19. Ekipo Aldeano	3	10



## JARDUNALDI PAREKATUA

## TALDEEN ARTEAN GERO ETA ALDE TXIKIAGO DAGO

Azken asteotan jokatu dute jardunaldiek erakusten dute Zaldibar Txapelketa gero eta parekatuagoa dela. Alde batetik, Kopako azken jardunaldietan izan ziren ezustek erakutsi zuten hori, eta joan den asteburuan Ligan izandako emaitzek ere beste horrenbeste erakusten dute. Talde indartsuek kale egin ez badute ere, You Know! izan da erraz irabazi duen talde bakarra (2-7), gainontzeko partiduetan, markagailuek alde txikia erakusten dute-eta.

Oraingo asteburuari dagokionez, goiko postuetako taldeek ez dute elkarren kontra jokatu, baina erdialdean dauden hainbat taldek neurtxo dituzte indarrak. Alde horretatik, domekan jokatu dituzten hiru norgehiagokak azpimarratu ditugu. Eta, baliteke horien artean ikusgarriena Goma2 eta La Kuadrilla taldeek jokatu dutena izatea. Zergatik? Beste gauza batzuen artean, sailkapenean berdinduta daudelako.

## KIROLAGENDA

## JOKATZEKOAK

## SASKIBALOA

Kalagorri - Mugarr Alkesa	Lehen maila. Zapata. 18:00. Kalagorri.
Mugarr Alkesa - Atletico San Sebastian	Juniorkak. Zapata. 12:00. Arrasaten.
Mugarr Alkesa - Urretxu	Kadeteak. Domekan. 12:15. Urretxun.

## FUTBOLA

Anaitasuna - Mondra	Preferentea. Zapata. 16:30. Azkoitia.
Mondra - Zumaiako	Ohor. Gazteak. Zapata. 16:00. Atxabalpen.
Arrasate - Antoniano	Gazteak. Domekan. 11:00. Atxabalpen.
Arrasate - Aloña Mendi	Ohor Kadet. Zapata. 11:00. Atxabalpen.
Luberri - Mondra	Neskek. Domekan. 17:00. Berion.

## ESKUBALOA

Ormaiztegi - AGR Arrasate	Lehen territ. Domekan. 11:45. Zubipen.
Arrasate - Pulpo	Bigarren territ. Domekan. 11:30. Iturripen.
Arrasate - Aiala Zarautz	Gazteak neska. Domekan. 10:00. Iturripen.
Urola Asp. - Gatz Museoa	Gazteak mut. Zapata. 16:30. Ispillan.

Leizaran - Arrasate  
Infantilak. Domekan. 10:00. Allurralden.

## ERRUGBIA

Gernika - Arrasate  
Euskadiko Txap. Zapata. 16:00. Gernika.

Arrasate - Ordizia  
Kadeteak. Zapata. 11:00. Garagarizan.

## PILOTA

Arrasate - Bergara  
Alebinak. Zapata. 16:30. Aretxabalean.

## FRONTENISA

### Eman izena Udaberriko Txapelketan

Debagoieneko Mankomunitateak antolatuta, laster hasiko dute Udaberriko VII. Frontenis Txapelketa, Arrasaten. Txapelketa hori Debagoieneko pilotalekuan frontenisean ibiltzen diren guztiei dago zuzenduta. Binakako txapelketa izango da, eta izena emateko epea otsailaren 23an amaituko da, datorren eguaztenean. Txapelketan esku hartzeko, abonatuak 12 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek 15 euro (jokalari bakoitzeko). Txapelketaren gaineko informazio gehiago izateko deitu 943 77 16 77 telefono zenbakira.

## ESKIA

### Besaideren eskutik, astein zehar irteera Formigalera

Urteak daramatza Besaide Mendi Elkarteak eski alpetarra egiteko irteerak antolatzen. Irteera horiek asteburu egiten dituzte, Formigalera. Oraingoan, baina, berrikuntza batekin datoz, datorren martxoaren lerako, martitzena, antolatu dute-eta irteera. Besaidekoek esan digute asteburu lan egiten dutenengan pentsatuta antolatu dutela egun baterako txango hori. 40 euroren truke, Formigalera bidaia eta egun bateko forfaita. Izena emateko azken eguna otsailaren 23a izango da, datorren eguaztena.

## MENDIKO ESKIA

### Kopa txapelketako lasterketa, Baqueira Bereten

Arrasateko bi kirolari ditugu Euskadiko Mendiko Eski Kopan agintzen, Isa Casado eta Leire Ezpeleta. Lehenengo lasterketan, Luz Ardidenen, Leire helmugaratu zen lehena, eta Isa Casado izan zen hirugarrena. Joan den astean, berriz, Isak hartu zuen erreleboa; bera izan zen lehena, eta Ezpeleta izan zen bigarrena. Oraingo asteburuan jokatu dute hirugarren jardunaldia, Baqueira Bereten. Ikusi egin behar bietako nor aurreratzen den Kopan, izan ere, badirudi beste inor ez dagoela eurei aurre egiteko moduan.



# EUSKAL HERRIAK

## KONSTITUZIO HONI **ez!**

**BOZKATU**



Otsailaren 20ko erreferendumean  
Euskal Herriak Konstituzio honi EZ  
**BOZKATU EZ**



**EZEZKOAREN ALDEKO EKIMENA**



**Atxikimenduak:**

Juan Luis Arexolaleiba	Euskaltzalea
Utzune Urrizalki	Zinegotzia
Joseba Ezpeleta	Euskaltzalea
Pili Iriarte	Kooperatibista
Alaitz Morras	Gazte mugimendua
Sagra Lopez	Feminista

Urtzi Axpe	Kirolaria
Goio Etxabe	Preso ohia
Leire Ormazabal	Sindikalista
Xabier Zubizarreta	Alkate ohia
Ander Gallego	Sindikalista
Iñaki Barrena	Irakaslea
Agustin Ibarluzea	Herri mugimendua

Amaia Etxebeste	Herri mugimendua
Atarratz Etxebarria	Sindikalista
Arantxa Olabe	Baserritarra
M <sup>e</sup> Asun Iturbe	Baserritarra
Dani Larrea	Euskaltzalea
Nagore Llodio	Euskaltzalea
Illart Azkarate	Errepresioaren aurkako mugimendua

SASKIBALOIA

# Ondo jokatzeari ez da nahikoa Kalagorri taldeari Europa pabilioian irabazteko

Talde errioxarra ia gaindiezina da etxean jokatzeko duenean; neurri handi baten, epaileei esker

XABIER URTZELAI

**Astebeteko deskantsua izan eta gero, Mugarri Alkesak bihar arratsaldean jokatu du Errioxan Kalagorriren kontra (18:00etan, Europa pabilioian). Kanpoan makalak badira ere, etxean ezin indartsuagoak dira; hori bai, epaileen neutraltasuna ezbaian geratzen da han.**

Makila bat eta urdaiazpiko bat. Horiexek Gorka Zurututzak bihar arratsaldean autobusera sartu beharko lituzkeenak. Makila errioxarrei egurra emateko, eta urdaiazpikoa egurra banatzen duten bitartean epaileak entretenituta izateko. Jagoba Gamarrak esan digu kantxa horretan ikusten direnak ez direla beste inon ikusten: "Gipuzkoan jokatzeko dugun epaile gipuzkoarrek epaitzen dituzte partiduak, baina ez dut uste gipuzkoarren alde egiten dutenik. Errioxan, baina, hango epaileek epaitzen dituzte partiduak, eta sekulakoak ikusten dira. Deigarria da Kalagorri etxe-

tik kanpo oso norgehiagoka gutxi irabaztea, eta etxean bakarrik irabaztea. Azpeitiak bakarrik irabazi du han, eta gainontzeko taldeek sekulako jipoiak jaso dituzte. Getxok, adibidez, 29 puntu baino ez zituen egin han, eta Zallak 49 baino ez. Hori guztia, baina, ez da berria, urteroko kontua da. Etxean lortzen dituzten puntuei esker eusten diote mailari".

## BOLADARI EUTSI

Taldea bolada onean dagoenean gutxi gura izaten dute deskantsua hartzea, erritmoa gal daiteke eta: "Akaso, hobe izango litzaiteke deskantsu barik jarraitu izango bagenu, baina gorputzak eskertzen du asteburu bat libre izatea. Gainera, min hartuta egon den Ugutz Basauri errekerperatu dugu".

Ikusitakoak ikusita, maila handiko saskibaloia egiteaz gain, kontu handiz ibili beharko dute Mugarri Alkesakoen. Ondo jokatu eta epailei barrabaskeriak egiteko ahalik eta motibo gutxien eman; hortxe gakoa.



AITOR LIZARRALDE

Norgehiagokan zehar burua hotz izan beharko dute Mugarri Alkesakoen. Irudian, Jagoba Gamarra.

## FOTOKIROLA



### Eskola mailako karate txapelketan, Arrasatek lan ona

Joan den asteburuan Arrasateko bederatzi karateka gazte Eibarren izan ziren eskola arteko karate txapelketan, eta lana behar den moduan eginda itzuli ziren. Benjamin mailan, katan, Maria Markiegi bigarrena izan zen, Javier Mendieta zazpigarrena, eta Joseba Azkarraga hamargarrena. Alebin mailan, Josu Fernandez izan zen kategoriako onena, eta Zuriñe Mujika laugarrena sailkatu zen. Infantiletan, mutilen kategorian Odei Vazquez eta Jon Riveiro hirugarrenak izan ziren—Kata modalitateak onartzen du hori—. Eta, nesketan Zahara Galan izan zen onena eta Ane Sanchez bigarrena. Otsailaren 27an, Donostian jokatu dute Gipuzkoa Mailako Eskola Arteko Txapelketa, eta hantxe izango dira joan den astean Eibarren kategorian bakoitzean sailkatu ziren lehen hiru karatekak. /X.U.

## Anaitasuna, gol gutxi jaso eta gutxiago egiten dituen taldea

X.U.

**Mondra baino postu bat atzerago dagoen Azkoitiako taldearen kontra jokatu du Mondrak bihar (16:30ean, Txerlora futbol zelaietan). Atxabalpen jokatu zutenean, urrian, berdindu egin zuten (1-1).**

Orduan, baina, larri ibili zen Mondra. Lehenengo minutuetan Arrasateko taldeak ondo jokatu zuen, baina Anaitasunakoak erdialdeko jokoaren jabe egin zirenean Arrasateko taldea desagertu egin zen. Atxabalpera hurbildutako zaleak ez ziren lasaitu epaileak partidua amaitzeko txistua jo zuenera arte, Anaitasunak

edozein momentutan egingo zuen lako garaipenaren gola.

### EZ GOIAN, EZ BEHEAN

Anaitasunaren gainean berba egiterakoan, datu bitxiak ditugu emateko: txapelketa osoan, hamabosgarren eta hamahirugarren postuen artean egon da talde hori. Hamaikagarrena da orain, eta behin bakarrik egon da aurrerago, hamargarren lekuan. Txapelketa osoko taldeen artean, eurak dira gol gutxien egin dituztenak (21), baina gaitza da euren gola egitea (22). Gainera, Anaitasuna da partidua gehien berdindu dituen taldea (12). Amaitzeko, etxean bi partidu baino ez dituzte irabazi.

ERRUGBIA

### Arrasatek Gernikako 'galaktikoen' kontra jokatu du, baina Zarautzi begira egongo da

Arrasate Errugbi Taldeak Gernikan jokatu du bihar, 16:00etan. Gernikarrendako entrenamendu saioa izango da, eurak dira eta kategorio horretako galaktikoak. Arrasatek, berriz, Gernikan gehiago baino Zarautzen izango du burua, hantxe erabakiko da eta nork eutsiko dion kategoriari. Zarautzek Bilboren kontra jokatu du, etxean, eta zarautzarrek badute punturen bat eskuratzeko aukera. Hala gertatuko balitz, Arrasatek galduko luke kategorioa. Garagartzan ere egongo da errugbia ikusgai. Kadetek jokatu dute, bihar, 11:00etan.



# Euskal Eskola Publikoaren alde Egin Kinu!!

Etorri gurera informazio eske  
Gurasook zeresan handia daukagulako,  
galdetu beldur gabe gutariko bateonbati.

Otsailaren 14tik 25era



ARRASATE HERRI ESKOLA  
2-12 urte bitartekoentzat



ARRASATE BHI  
12-21 urte bitartekoentzat

## 2005-2006 IKASTURTERAKO MATRIKULA EPEA ZABALIK: Otsailaren 14tik 25era arte



Telefonia: 943 79 77 74  
e-posta: arrasateesk@goieskola.net

- Integratzailea: euskal kultura garatzen dugu, eta beste kulturak era egokian geureganatu eta garatzen ditugu.
- Pertsonen arteko harremanak bultzatzen ditugu.
- Sortzailea eta autonomia.
- Ikastetxeen arteko loturak sustatzen ditugu.



Telefonia: 943 79 44 47  
e-posta: iarrasate@euskalnet.net

INFORMAZIO BILERA,  
MUSAKOLAKO INSTITUTUAN,  
BEHEKO ERAIKINEAN,  
OTSAILAREN 22AN, 18:00ETAN.

ARAMAIOKO SAN MARTIN ESKOLAN  
OTSAILAREN 21EAN 18:00ETAN



Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa



# Matrikula epea 2005-2006

Haurtzaindegia - Haur Hezkuntza - Lehen Hezkuntza - D.B.H



Mesedeetako Andra Maria

IKASTETXEA

Tel.: 943 79 27 73

ARRASATE



## Amagara

GERTATU ZURE AZALA  
2005eko ASTE SANTURAKO

Solariumeko eskaintza berezia

6 saio + 1 doan  
42 euro bakarrik

Otsailaren 12etik apirilaren 21era

Zure beltzaran-kolorea zaintzen dugu eta indarrean dagoen  
legeak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditugu

Beltzaran jartzeko aparatuen UVA izpiek eragina izan dezakete azalean eta begietan.  
Ondorioak izpien izaeraren eta intentsitatearen arabera izango dira, baita  
pertsona bakoitzaren azalaren sentzibilitatearen arabera ere.



MUSIKA / III. Cante Flamenko Txapelketaren finala

## Bihar, zapatua, Amaia Udal Antzokia lepo beteko dute cante flamenkoa entzuteko

IKER BARANDIARAN

Txapelketak hirugarren edizioa beteko du bihar. Finalerdiak bukatuta, bost finalistek Amaia Udal Antzokian lehiatu beharko dute, 19:00etan. Sarrera doan izango da, baina txartelak Al Andalusen edo egunean bertan antzokiko txarteldegian (18:00) eskatu beharko dira.

Baikor daude Al Andaluskor arduradunak. Aurtengoa hirugarren Cante Flamenko Txapelketa da, eta aurreko bi edizioetan, finalean, Amaia Udal Antzokia betetzea lortu zuten. Are gehiago, antolatzailerik azpimarratu dute finalak lau ordu iraun zuen arren, ikusleak ez zirela mugitu.

Aurtengo edizioan hainbat berrikuntza egin dituzte: finalean sei lagun lehiatu beharrean, bost lagunek esku hartuko dute; eta bost horiek sariak eskuratu dituzte. Partaide kopurua murriztearen arrazoiak da gurago dutela ekitaldia laburragoa egin. Hiru bat ordu iraungo duela uste dute. Horrez gain, babesle gehiago lortu dituzte, eta, hortaz, sari gehiago.

Esaterako, txapelketaren irabazleak 1.200 euro eta Al Andalusen egindako trofeoa eskuratu ditu. Trofeo horretan gitarra bat eta Arrasateko Portaloia



AITOR LIZARRALDE

Al Andalus elkarteko arduradunek aditzera eman digute maila handiko finalistak lehiatuko direla.

agertzen dira, eta, modu horretan, Arrasateren eta flamenkoaren arteko lotura irudikatzen du.

Gainontzeko lau finalistek jasoko dituzten sariez gain, badira beste bi, bereziagoak: bata,

joan-etorriko cante onenari; eta bestea, Euskal Herrian bizi den abeslari onenari. Azken hori badakigu zeinek jasoko duen: Gasteizko Paco Guerrerok, hain zuzen. Hala eman dute aditzera.

Honako hauek izango dira finalistak: Kordobako Isabel Rico, Gasteizen bizi den Paco Guerrero, Getafen bizi den Rocio Ruiz eta Nafarroan bizi diren Antonio eta Jose Parra anaiak.

## Luxuzko punk-rock doinuak 3.60 aretoan

I.B.

Bihar, zapatua, kontzertua egingo dute 3.60 aretoan. Ikusmina piztu duten bi taldek joko dute: ibarreko musikari ezagunez osatuta dagoen Isarevolution eta Donostiako Señor No taldeak, hain zuzen. 23:00etan izango da, eta rock doinu gogorak izango dira.

Bihar, zapatua, rock doinu doto-reak entzuteko aukera izango da 3.60 aretoan. Señor No taldea, aspaldiko partez, Arrasatera etorriko da. Donostiako talde horrek urte asko darama jotzen; 1993an sortu zuten.

La Perrera taldea desagertu zenean, Mikel eta Xabik beste talde bat sortzea erabaki zuten. Horretarako, Andoni eta Imanolekin bat egin zuten. Ordutik hona Espainiako Estatuko ehunka eszenatokitan jo dute eta lau disko kaleratu dituzte, besteak beste. Azkeneko lana da Suediako Sewergrooves taldearekin erdibana kaleratutako EP biko-

tza. Punk-rocka eta 70eko rock gogorra oso modu berezian uztartzen dituzte, eta oso kontzertu gogorak ematen dituzte, bizibizikiak. Bitxikeria moduan, aurrera dezakegu honako hau Mikel baxu jotzailearen azkeneko kontzertua izango dela.

Eurekin batera, Isarevolution taldeak esku hartuko du. 2003an, Ekon taldea desagertu zenean, Yagok (gitarra jotzailea), Iñigok (baxu jotzailea) eta Inesek (abeslaria) Txotxe (bateri jotzailea) eta Migelekin (gitarra jotzailea) bat egin zuten.

Punk-rock eta pop-rock estiloen arteko kantuak idazten hasi ziren, eta emaitzarekin oso gustura gelditu ziren. Are gehiago, Inesen ahotsak indar eta izaera berezia ematen die kantuei.

Bestalde, kantuetan, lagun horiek iraganean esku hartutako taldeen aniztasuna jasotzen dute zelanbait (Ekon, Heriotza, Gospel Killers, Dog Bite, Amatxon...). Orain arteko ibilbide laburrean, besteak beste, Danbaka lehiaketan esku hartu dute.



Aspaldiko partez, Señor No taldeak kontzertua egingo du Arrasaten.

GP EKOIZPENAK

KULTURAPILULAK

### Oscarretarako proposatutako filmetako bat

Bihar, zapatua, ez dute filmik emango, Cante Flamenko Txapelketaren finala dagoelako. Astelehenean, berriz, *Trikitraka trikitron* ikuskizuna egingo dute. Horregatik, gaur, egubakoitza, eta domekan bakarrik emango dute *El avia-*

*dor* filma. Film horrek 169 minutu irauten du, eta Martin Scorsesek zuzendu du (*Taxi driver*, *Gangs of New York*...). Howard Hughes gazteak aitaren negozioa hartuko du. Horren ostean, zinema munduan lan egingo du eta hainbat aktore famatu ezagutuko ditu. 33 urterekin munduari bira egitea erabakiko du, berak asmatutako hegazkin batekin. Protagonistak, besteak beste, hauek dira: Leonardo Di Caprio (*Gangs of New York*, *Titanic*...); Cate Blanchett (*Coffe and cigarettes*, *Premonición*...); eta Kate Beckinsale (*Van Helsing*, *Pearl Harbor*...).

Eguenean, *El abrazo partido* lana emango dute. Atzerrian bizi den familia judutar baten istorioa kontatzen dute. 100 minutu irauten du, eta Daniel Burman argentinarrak zuzendu du (*Todas las azafatas van al cielo*...). Urrezko Har-tza irabazi zuen iaz, Berlinen.

Domekan, gaztetxoendako *El niño que quería ser un oso* filma emango dute.

UMEENDAKO IKUSKIZUNA/ETBko 'Trikitraka trikitron' programaren grabazioa

# Txirri, Mirri eta Txiribitonen tren magikoak Amaia Udal Antzokian egingo du geldialdia

IKER BARANDIARAN

Astelehenean eta martitzenean, hilaren 21ean eta 22an, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen *Trikitraka trikitron* telebistako programa grabatuko dute Amaia Udal Antzokian. Gaur, egubakoitza, egongo da sarrerak hartzeko aukera (17:00-19:00).

Beste behin, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen telebistako programa Arrasaten grabatzea erabaki dute. Bi egun izango dira: astelehena eta martitzena, hain zuzen ere. Bi egunotan 19:00etan egingo dute. Gaur, egubakoitza, egongo da sarrerak hartzeko aukera. Euro baten salduko dituzte Amaia Udal Antzokiko txarteldegian. Betizu Klubeko bazkide direnek, berriz, txartela erakutsiz gero 50 zentimo ordaindu beharko dituzte. Lagun bakoitzak sei sarrera bakarrik hartu ahal izango ditu.

## PAILAZOAK, TREN GELTOKIETAN

Hiru pailazoen arrasatearrei bisita egingo diete Pelipe lokomotorra magikoan igota. Bidaia ederra izango da, eta abentura xelebrea bizi izango dituzte, adiskide guztien konpainian: Maitane, Pepitto, Graxiana sorgina, Andreino Rosita, Lilinuit, Juanita



Astelehenean eta martitzenean egingo dituzte ikuskizunak.

detektibea, Moro katua, Marsel margoa, eta abar. Horrez gain, Kakusai eta Kakusina maltzurak ere inguruan ibiliko dira.

Programak aurreko denboraldiko ikuskizunaren ezaugarri

nagusiak izango ditu: Txirri, Mirri eta Txiribitonen kantak, hiru pailazoen eta gainontzeko pertsonaien esketx umoretsuak, artista gonbidatuen tarreak, eta zozketa bidez aukeratutako lau

umerekin egindako ikatz-jaurtiketa lehiaketa.


Lehiaketa horretan esku hartzeko, zozketa egingo dute antzokian. Horretarako, 6 eta 12 urte bitarteko umeak behar dituzte.

# Txatxilipurdik webgunea berritu du, eta zerbitzuak eta informazioa gehitu ditu

laz Txatxilipurdiko lantaldea webgunea berritzen fin ibili zen, eta dagoeneko prest dauka. Aspaldian webgune hori erabili ez duena harrituta geldituko da. Elkarteak eskaintzen dituen ohiko zerbitzuez gain, beste hainbat eskaintzen dituzte.

Elkartearen ohiko webgunera, [www.txatxilipurdi.com](http://www.txatxilipurdi.com)-era, sartuz gero, sarrera aldatu dutela antzeman daiteke. Txatxilipurdik bere baitan dituen sailak deskribatu eta elkarteak sortutako ekoizpenak erakustez gain, beste hiru sekzio estreinatu dituzte.

2 eta 12 urte bitarteko umei zuzendutakoari *Kukumarru* izena jarri diote. Horren baitan, ipuinak, txisteak, eskulanak, errezetak, euskal mitologiaren pertsonaiak, asmakizunak, atsoitzak, eta beste batu dituzte. Umeendako aproposak diren edukiak sartu dituzte, umeek eurek edo gurasoek erabil ditzaten. 12 eta



Jolasak, loturak, agenda, proposamenak... Denetik aurki daiteke.

16 urte bitartekoendako, *Saltsa maltzan* sortu dute. Besteak beste, gazteei interesa pizten dizkieten gaien gaineko loturak eskuragarri ipini dituzte. Horrekin batera, literatura, musika eta

beste arlo batzuetako proposamenak, udalekuen eta gazte txokoen informazioa, malabarismo-jolasak, Arrasateko musika eta kirol taldeen gaineko informazioa, eta abar batu dituzte.

## Umeek, gurasoek eta gazteek oso erabilgarriak diren aukerak aurkituko dituzte

### BERTSO-JARTZAILE ZERBITZUA

Bitxikeria moduan, bertsoen eskatu ahalako zerbitzua sortu dute. Bertsoak behar dituenak aukera dauka gaiaren eta hartzailearen gaineko zehaztasun batzuk argitu, eta 72 orduan bere tamainako bertsoa jasotzeko. Txatxilipurdi arduratuko da horretaz. Bertso personalizatua merkeenek bost euro balio dute. Baina bertso estandarrek doan eskura daitezke.

Aldaketa horiekin guztiekin gura dute guraso, gazte eta umeek duten eskaerei erantzuna ematea eta euskararen presentzia areagotzea Interneten. Teknikari lanak Arkaitz Biainek eta Beñat Irazabalek egin dituzte.

## KULTURAPILULAK

### Juan Artzamendiren omenaldirako entseguak

Juanito Artzamendiren omenaldia egingo diote maiatzaren 28an. Goikobaluk esku hartuko du ekitaldian, besteak beste, eta hainbat entsegu egingo ditu. Honako egunetan izango dira: otsailaren 22an eta 24an, martxoaren 8an eta 10ean, eta apirilaren 5ean, 7an, 19an eta 21ean. Martitzenez, Musika Eskolan, 21:00etan; eta egunetan, Gazteluondon, 20:00etan. Abesbatzak Gabriele Faureren *Requiem* eta Juanito Artzamendiren *Udala mendi* abestuko ditu.

### Sexmetraia 2005 film laburren lehiaketa abian

Arrasateko Udaleko Sexologia Zerbitzuak Sexmetraia 2005 film laburren lehiaketa jarri du abian. Lan horien bitartez, sexualitatearen erakusleho izan gura du. Edozein nazionalitateko lagunek esku hartu ahal izango dute, eta edozein hizkuntzatan aurkeztu ahal izango dituzte. Gaia sexualitatea izango da eta lanek derrigorrez 2002ko urtarrilaren 1aren ondoren ekoiztuta egon beharko dute. Martxoaren 8rako eman beharko dute izena, baina lanak ekainaren 28a aurretik aurkeztu beharko dituzte. Bi sari emanango dituzte: bata, 1.500 euro eta bestea, 600 euro. Informazio zabalagoa: [www.sexologia.zerbitzua.com](http://www.sexologia.zerbitzua.com)

### Jose Ramon Vitoria musikaria doktore izendatu dute

Otsailaren 4an, Jose Ramon Vitoria irakasle eta musikari arrasatearrek doktoretza tesia defendatu zuen Gasteizen. Honako izena du tesia: *Aptitudes musicales y aprendizaje instrumental de personas con necesidades educativas especiales*.

Tesiak oso harrera ona izan du, ezin hobea, eta bikain cum laude eman diote. Alfredo Goñi irakaslea izan du Jose Ramonek tesi zuzendari.

Ikerketa hori egiteko, Jose Ramon Vitoriak 15 lagun aztertu ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, horiek guztiak hezkuntza premia bereziak dituztenak, down sindromea, atzeratasuna eta autismoa dutelako.

Gaur egun, Jose Ramon Vitoriak Musika irakasten du Arrasateko Musika Eskolan eta baita Mondragon Unibertsitateko HUHEZIn ere. Azken urteotan, lan handia egin du musikaren eta irakaskuntzaren alorretan.

EZETZASMATU



Zein santuren izena du Meatzerreka auzoko ermitak?  
Arrastoa: orain dela gutxi ospatu zituzten auzoko jaiak.

U.M.

**Super BM**

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**Martini gorria edo zuria**  
Litroko botila

**5,15€** 857 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**JOSE ARROCHA**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Jose!  
Galderen erantzun zuzena:  
Zaldibar kalea.

ARRASATEKO HISTORIA

# Garagartza auzoko laminaren kondaira


'LAMIAK ETA SORGINAK' / J. DUESO

**D**atozen kapituluetan, Arrasaterekin lotutako kondairak kontatuko ditugu. Ez dugu askorik aurkitu. Baina bai bat edo beste. Garagartzako laminaren istorioarekin hasiko gara. Halaxe dio:

“Arrasateko Garagartza auzoan, Korrioneko baserrian bizi zen artzaina. Egunero Kobaundiko leizearen ingurura joaten zen ardiak larratzera. Behin, ardiak zaintzen zegoela, emakume bat ikusi zuen leizetik irteten, ezin emakume ederragoa, begitarte arrai eta azal ilunekoa, urrezko soineko batez jantzia. Artzaina, zirrara batek astindurik barrena, harri eta zur gelditu zen haren aurrean”.

Kondairak dio emakume eder hark artzainari bere maitemina aitortu ondoren, ezkontzeko eskatu ziola. Baldintza bakarria ipini zion, proba bat gainditzea: emakumearen adina asmatu. Ametsetan bezala, pozarren jaitzi zen artzaina Garagartzara.

“Garagartzan bazen atso zahar bat igarle ospea zuena; txanpon batzuen truke edozeini laguntzeko prest egoten zen beti hura. Artzainak haren etxera jo zuen denborarik galdu gabe, eta Kobaundiko emakumearen adina



Garagartzan ondo gogoan dute laminaren kondaira, plazako harrizko irudiak erakusten duen moduan.

U.M.

asmatzeko eskatu zion mesedez”.

Eguzkia sartu aurretik jakin-go zuela agindu zion atsoak.

“Atso sorgina Kobaundiraino igo zen. Han leizearen aurrean gelditu zen, sarrerari bizkarra ematen. Jaso zituen bere gona beltzak, jarri zituen hankak zabal-zabal,

*Amaren esanari jaramon egin eta emakumeari hanketara begiratu zion artzainak*

makurtu zuen gorputza aurrerantz eta burua sartu zuen hanken artean. Handik gutxira leizeko emakumea azaldu zen, eta jarrerara barregarri hartan ikusirik atsoa...

— Nire ehun eta bost urteko bizitzan ez nuen sekula halako

rik ikusi! — bota zuen hitzetik hortzera, begiak harriduraren harriduraz zabal-zabal zituela”.

Atsoak segituán jakinarazi zion laminaren adina gazteari. Pozari ezin eutsiz, gazteak amari kontatu zion Kobaundin gertatutakoa. Baina amak zera esan zion:

“— Entzun, seme. Emakume hori ikusten duan hurrengoan, begira egiok oinetara. Giza oinak baldin baditu, ongi duk, emaiok ezkontzeko hitza, eta ezkondu hadi berarekin hala nahi baduk. Baina ez baditu, kontuz, aldendu hadi lehenbailehen berarengandik”.

Amaren esanari jaramon egin eta emakumeari hanketara begiratu zion biharamunean artzainak. Negarrez lehertzeko zorion alde egin zuen berehala handik, emakume haren hankak gizaki batek ez baina ahate batenak zirelako. Handik aurrera, maitemina jota, gaixotu egin zen. Hil arte.

Kondairak dio hurrengo egunean emakume eder bat azaldu zela hildakoaren ondora. Eta, hileta egunean, hildakoari lagundu zio-la zimitoriora bidean, baina elizara sartu barik. “Kanpoan geratu zen euri zirin batén azpian, begirada urrutian non-edo-han galdua”. Urteak geroago, auzotarrek oraindik gogoan zuten emakumea, baina hura ez zen berriro azaldu.

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko otsailaren 18a / 140. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otalora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Maider Unda borrokalariak Espainiako Txapelketa jokatu du aste bukaeran

UBANE MADERA

Gijonen jokatu dute 2005eko Borroka Libreko Espainiako Txapelketa. Gaur, barikua, pisatu egin dituzte borrokalariak eta bihar eta etzi jokatu dituzte kanporaketak, Gijongo kirol pabilioian. Azken sei urteotan Mainer Unda izan da Espainiako txapelduna.

Kanariar Uharteetako, Madrilgo eta Euskal Herriko borrokalari banak parte hartuko du aurtengo Espainiako Txapelketan. Horrenbestez, Mainer Unda oletarrak borroka bana jokatu beharko du kirolari bakoitzarekin, txapela eskuratzeko. Kontatu digunez, azkenaldian pisua zaintzen ibili behar izan du, jokatzen duen mailarako lau kilo goitik zegoen-eta (72 kiloko mailan jokatzen du). Kontatu digu, baita ere, entrenatzen oso ondo ibili dela eta azkenaldian belauna ondo izan duela. Hori bai, gaineratu digu arazoak dituela sakro iliakoan. Ez dela lesio gogorra eta borrokarako ez diola mugarik ezartzen, baina hortxe dagoela. Espero dezagun txapelketarako arazo ez bihurtzea.



Besteak beste, Luis Crespo entrenatzaile gasteiztarrak lagunduko dio Mainer Undari datozen egunotan.

### NAZIOARTE MAILAN SEGITU NAHI

Gaur hartu behar zuen Mainer Undak Gijonerako bidea. Besteak beste, Luis Crespo entrenatzaile gasteiztarra eta Mikel Mar-

dones borrokalari kadetea izango ditu lagun datozen egunotan. Oraingo honetan txapela irabaztea lortzen badu, zazpigarren aldia izango da. Eta, gainera,

etorkizunean jokatu diren nazioarteko txapelketetan parte hartzeko ateak zabalduko dizkio oletarrari. Hain justu ere, horixe da oletar borrokalariak

*Oraingo honetan txapela irabaztea lortzen badu, zazpigarren aldia izango da*

*Mainer Unda 10 urte baino gutxiagoarekin hasi zen borroka libreakin*

denboraldi honetarako duen helburu nagusia.

Mainer Unda 10 urte baino gutxiagoarekin hasi zen borroka libreakin. Azken urtean ADO berekin izan da Madrilan. Atenas Olinpiar Jokoetan parte hartu ere ahalegindu zen, baina zortzi ez zion lagundu. Orain, berriruz ibili da hona, eta Luis Crespoekin lanean segitzeko asmoa du.

## Datorren astean, 2005eko aurrekontua aztergai

U.M.


Makina bat buruhausteren ostean, udal taldeak lortu du 2005erako aurrekontua egitea. Eguaztenean egingo dute osoko bilkura. Horrekin batera, besteak beste, Udalak ematen dituen dirulaguntzak arautzeko ordenantza ere aztertuko du udalbatzarrak. 18:00etan hasiko da batzarra.

Aurrekontuaren kasuan, hasierako onespina eman beharko dio udalbatzarrak aurrekontuari.

Dirulaguntzen ordenantzari dagokionez, berriz, gai hori arau-

tzea da asmoa; hala, automatikoki aurrekontuaren bitartez banatuko dituzte aurrerantzean laguntzak. Bi ordenantza eztabaidatuko dituzte: laguntza orokorrekin lotutakoa (euskara, kultura...) eta presoen senitartekoei eman beharreko laguntzena. Azken horien kasuan, gainerako dirulaguntzak baino zehatzagoak direlako eta eskaerak kasuz kasu aztertu behar direlako erabaki dute gainerako dirulaguntzetatik banantzea.

Udalak dirulaguntzen ordenantza onartzen badu ere, behin-behinerako erabakia da, gero hilabete dago-eta alegazioak aurkezteko.



## Haize bortitzak kalteak eragin ditu

Kaleko obretako hesi guztiak bota zituen astelehenean haize bortitzak. Kalte handiagoen artean, berriz, zenbait auzotarako bide bazterretan zuhaitzak bota zituen. Baserri batek edo bestek ere izan zituen kalteak, teilatuen batez ere, pinuen erorketengatik. Eta pilotalekuan, leihoak babesteko bi plaketa lekutik ateratu eta bata bota egin zuen eta beste zintziluk utzi zuen haizeak.

Berriz, eguaztenean elurrak eragin zituen zailtasunak, Kurtzetan eta zenbait auzotan, esaterako. U.M.



**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIK**

Osasun etxea (txandak) .....	945 44 53 40
Botika .....	945 44 50 03
Udaletxea .....	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate) .....	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio) .....	945 45 52 52
San Martin Eskola .....	945 44 50 04
Taxia eta autobusak .....	945 44 50 33
Udal kiroldegia .....	945 44 53 35
Postetxea .....	945 44 50 83
Zulako Eskualdea .....	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga) .....	943 78 28 00

**AUTOBUSORDUTEGIA**

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

**OHARRA:** izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabilgi gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

**OHARRAK**

**BARIKUKO ZINEMA**

M. Night Shymalan zuzendari indiarren *El Bosque (The Village)* filma emango dute oraingoan. 2004an egindako filma da, suspenseduna. Zuzendariak badu esperientzia halakoetan, besteak beste, *El sexto sentido* eta *Señales* filmen zuzendaria izan da-eta. Aipatu beharra dago, gainera, datorren asteburuan jokatu diren Oscar sarietara proposatuta dagoela *El Bosque*, soinu banda orijinalen atalean. Film horretako aktore dira, besteak beste, Sigourney Weaver, William Hurt eta Joaquín Phoenix. 22:30ean hasiko da saioa.

**HERRIAREN GAINEKO WEBGUNA**

Aramaioko eta inguruko argazki ikusgarriak ikusi nahi izanez gero, Internetek alternatiba polita eskaintzen du. *Aramaio.com* izeneko webguneak urteak darabazta halakoak erakusten. Esaterako, elurrik utzitakoak ikus daitezke webguneko arduradun Iñaki Mondragon argazkilariaren eskutik.

# Lau aramaioarrek parte hartuko dute Arabako Bertsolari Txapelketan

UBANE MADERA

**Azken urteotan moduan, aurten ere izango da herriko ordezkari Arabako Bertsolari Txapelketan. Bihar, zapatua jokatu dute aurreneko kanporaketa; bi aramaioar izango dira han. Guztira, 23 bertsolarik parte hartuko du 2005eko jardunaldian.**

Iker Agirre eta Andere Arriola-bengoa aramaioarrak lehiatuko dira biharko kanporaketan. Arabako Bertsotzale Elkarteak jakinarazi digunez, Araian izango da saioa, Andra Mari Aretoan, 19:00etan hasita. Bi aramaioarrek beste zortzi lehiakide izango dituzte aurrez aurre. Naroa Sasietak aguraindarrak jardungo du aurkezle lanetan.

Kanporaketa hori irabazten duen bertsolaria zuzenean sailkatuko da finalaurrekorara. Irabazten ez dutenek, berriz, otsailaren 26an Lapuebla de Labarcán jokatu dute bigarren kanporaketako puntuazioaren zain izan beharko dute. Bigarren kanporaketa horretan ere, saioa irabazlea zuzenean sailkatuko da finalaurrekorako. Eta gainontzeko bertsolari guztien artean, kanporaketa bietan jardun duten guztien artean, puntuazio altuena lortzen duten bostak sailkatuko dira finalaurrekoetarako.

Hala, guztira, zazpi lagun. Eta zazpi horiei beste bost lehiakide gehituko zaizkie finalau-



ARTXIBOA

Iaz, Aramaion jokatu zuten txapelketako kanporaketetako bat.

*Finalean jokatu dute 12 lagun artean, Manex Agirre ere izango da, iaz finalista izan zelako*

rrekoetan: 2004an finalista izan zirenak. Tartean, Manex Agirre herriakidea izango da.

Hala, 12 lagun horien artean, bi finalaurreko jokatu dituz-

*Guztira, 23 bertsolarik parte hartuko du 2005eko jardunaldian*

te. Eta horietatik, sei lagun sailkatuko dira finalerako. Gero, sei horien artean aukeratuko dute 2005eko Arabako txapel-duna.

**HELBURUA, FINALAURREKOA**

Biharko saioan jardungo duten bi herrikideek, Iker Agirrek eta Andere Arriolabengoak esan digute ez daudela urduri lehiaketarengatik. Andere Arriolabengoak gaineratu digu bere helburua dela finalaurrekorara iristea eta finalaurrekoan, saio erregularrak bat egitea.

Bai bata zein bestea azken bost urteotan dabiltza Arabako Bertsolari Txapelketan parte hartzen.

Era berean, esan beharra dago beste aramaioar batek ere parte hartuko duela lehiaketan: Lierni Altunak Legutianon jokatu dute finalerdia aurkeztuko du.

**FINALA, APIRILAREN 9AN**

Betiko moduan, finala Gasteizen jokatu dute, baina leku berria estreinatuko dute aurten: hain zuzen ere, apirilaren 9an izango da, Jesus Guridi Auditorioan.

Iazko (eta beste urte askotako) txapelkun Asier Otamendi garaitzeko grinaz aparte, 2005eko udazkenean jokatu den Euskal Herriko bertsolari txapelketan parte hartu ahal izateko txartelak daude jokoan Arabako Bertsolari Txapelketan.

**PARTE HARTZE ARRAKASTATSUA**

Guztira 23 bertsolarik parte hartuko du 2005eko jardunaldian. Antolatzaileek nabarmendu gura dute, txiki-txikia izatetik, geroago eta parte hartze handiagoa lortzen dabilela Arabako txapelketa. Gainera, Araba gehiena egongo da ordezkatuta.

## Korrikarako ahalik eta kilometro gehien erosteko deialdia egin dute

U.M.

**Atzo, eguna, egin zuten kultura etxean Aramaioko Korrika Batzordearen aurreneko batzarra. Korrikako ibarreko antolatzaileak Aramaioko Udalarrekin, kultura elkarteekin eta Txirritola Euskara Elkartearekin izan dira, ahalik eta partaidetza handiena lortzeko.**

Batzorde horren helburua da, batetik, Korrika Txikia antolatzea, Aramaioko eskolako umeekin. Eta bestetik, Korrika iristen den egun bererako ospakizunen bat antolatzea herrian. Hala adierazi digu Korrikako Debagoieneko arduradun Ibai Redondok.

**KILOMETROAK, 320 EURO**

Baina, batzarrak hirugarren helburu bat ere izan du; helburu nagusia: kilometroak saltzen

ipintzea. Izan ere, Aramaiori bederatzi kilometro egokitu zaizkio aurtengo Korrikan. Asko dira, inguruko herriekin konparatuz gero (Aretxabaletak lau ditu, eta Eskoriatzak hiruzpatalau). Horrexegatik komeni da ahalik eta kilometro gehien saltzea, herriko kultura elkarteekin eta erakundeekin zein partikularren artean.

Ibai Redondok jakinarazi digunez, 320 euro ordaindu beharko da kilometro bakoitza. Interesa duenak Arrasateko Erdu-AEK euskaltegira deitu

beharko du: 943 77 03 69 telefonora edo Aramaioko Korrika Batzordearekin harremanetan ipini.

**EGUNA ETA IBILBIDEA**

Martxoaren 16an iritsiko da Korrika 14 Aramaiora. Arrasate eta Arabako mugan hartuko dute lekukoa herriko ordezkariak, handik Ibarrara igoko da eta kalea zeharkatu eta gero, Azkoaga eta Zabola bisitatuko ditu. Handik, Untzillara egingo du eta Untzillatik Aretxabaletara jaitsiko da.

**IKER AGIRRE, GASTEIZEN**

Bestalde, eta Korrika Kulturaren barruan, Xenpelar Dokumentazio Zentroak jakinarazi digu gaur, barikua, bertso saioa izango dela Gasteizen. Parte hartuko dutenen artean, Iker Agirre aramaioarra ere izango da. Kobazulo tabernan egingo dute bertso-saioa, 20:30ean hasita.

*Inguruko herriei baino kilometro gehiago egokitu zaizkio Aramaiori: hamar*

**LABUR**

**Eskolarako aurre-matrikulazio kanpaina**

Datorren otsailaren 25ean bukatuko da San Martin Eskolako Haur Hezkuntzan aurre-matrikulazioa egiteko epea. 2003an jaio ziren umeen gurasoei zuzendutako deialdia da. Aurre-matrikulazioa egiteko eraman behar da familia liburuaren fotokopia eta gero, eskolan dagoen inprimakia bete beharko dute.

**OTXANDIKOEN BISITA**

Bestalde, datorren hilerako iragarritako ekitaldien artean, besteak beste, Gasteizko Teatro Principal antzokira eta Artiumera joango dira ikasleak, antzerki saioak ikustera. Horrez gainera, Otxandioko Mañondo eskolako ikasleen bisita ere izango dute. Besteak beste, bertso edo kantu saioen bat egingo diete bisitariei.

## ERRETRATUZAHARRA

## Asfaltoa barik, mendi inguruak nahiago

**O**n Justino Uribesalgoren argazki artxibotik eskuratu dugu irudiotako antzinako argazkia. Udalatz mendia erakusten du atzeko aldean. Ez dakiguna da argazkia nondik aterata dagoen. Gure berriemaileek ere ezin izan dute ziurtasun osoz esan zein den lekua.

Kontuak kontu, negu bukaerako edo hasierako (ia hosto bako zuhaitzak ikusita, bietako edozein izan daiteke) eguraldi ona aprobetxatu eta mendi bueltatxoa egitera joan

ziren argazkian azaltzen diren lau emakumeak.

Honako hauek dira: aurreko aldean eserita daudenen artean, Begoña Amozarrain da ezkerrekoa eta Esperanza Baltzategi eskumakoa; atzeko aldean daudenen artean, eserita dagoena Edurne Osinaga da eta belauniko dagoena Maria Luisa Berezibar.

**Argazkia:** On Justino Uribesalgo.  
**Informazioa:** J. Gorroñoigoitia eta J. Iria.

**Urtea:** Joan den mendeko 40-50eko hamarkada.



## ADI, IRAKURLE

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz ARRASATE PRESSera (Otalora, 31). Zain gaituzu!

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

## Arrasateren 'bihotza' non dagoen

**L**iburu zaharrek diotenez, Arrasatek Leintz eta Ugaran ibarrek bat egiten duten lekuan beharko luke, Santa Barbarako mendebaleko magalean. Santa Barbara izena nahiko berria da, 1653an Barbara Abarrategi Orok Goiko-Obaluko ermita eraiki zuenean jarritakoa. Arrasate izeneko leku hartan gurutze bat zegoen, harrizko zutabe baten gainean.



≈ 1993 Historiak dioenez, Alfontso VIII.ak 1200. urtean Gipuzkoa hartu zueneko lekuaren oroigarri da gurutze hori.




2005 Hamabi urte hauetan asko aldatu da Santa Barbara. Herriaren erdian dagoen menditxo horren magalean dago jatorrizko Arrasate.



Txitxinpe

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



EGUZKIGRAF  
inprimategia

ARETXABAETA

Industrialdea E-0-4  
Tfnoa: 791844  
Faxa: 792941




Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE



# NACEX

Helbide berria!



## EUSKONACEX S.A

San Andres auzoa  
Azeri kalea 7  
20500 ARRASATE

Tel.: 943 79 92 77  
Faxa: 943 79 99 21



## 05-06 ikasturterako matrikula epea zabalik

otsailaren 14tik 25ra

### UMEZAINTZA-URIBARRI

Udal Haur Eskolan (0-3 urte)

Uribarri etorbidea, 29 • 902 11 20 25

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi  
izanez gero, aurrez telefonoz abisatu.



ARRASATEKO  
UDALA

Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua



Arizmendi ikastola

geurea, zeurea

# Etxeko konponketak

## Elektrizitatea



**Aranzabal** Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak  
Antena kolektiboak  
Zerkaosteta 15  
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

## Iturgintza



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

## Leihoak



**ARGI PLASTIK**

PVC, aluminio termiko  
eta poliuretanozko  
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.  
Tel./ Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

## Margoak

# Apain

MARGO ETA APAINKETA  
Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

## Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea  
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



**ION LEIHOAK**

PVC • Aluminioa RPT  
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE  
Tel./Faxa: 943 79 11 35

## Eraikuntzak

### Arrasate eraikuntzak SL

Meatzerreka auzoa 30  
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26

# Jovi

10.000 KOLORETAKO MENUA  
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87



## Izcue Irurzun

Igeltserotza orokorra  
Etxeen berrikuntzak  
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66



**ZUTARRI s.l.**  
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.  
Tel: 943 79 67 78 Faxa: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora